

CONCOURS DE RECRUTEMENT DE PROFESSEURS DES ECOLES

**« Concours Externe Spécial »
« Second Concours Interne Spécial »**

Épreuve écrite
BASQUE

Durée : 3 H - Coefficient : 1

L'usage des calculatrices et du dictionnaire est interdit.

Ce sujet comporte 4 pages numérotées de 1/4 à 4/4.
Dès que ce sujet vous est remis, assurez-vous qu'il est complet.

IBRAHIMA

Ni Ginean sortu nintzen, baina ez Ginea Bissaun, ez Ekuatore Ginean. Bada beste Ginea bat Konakry duena hiriburutzat. Sei herrialderekin egiten du muga. Hiru esango dizkizut: Senegal, Sierra Leona eta Mali. Han gertatu nintzen sortzean.

5 Ni fula etniakoa naiz, eta gure hizkuntza pularra da, baina hitz egin nezake malinkez. Susuz ere moldatzen naiz. Ginean hogeita bost hizkuntza hitz egiten dira. Frantsesa ere bai. Hogeita sei. Hori ere badakit, eskolan ikasi nuelako. Baina ni fula naiz, pularrez hitz guztiak dakizkit. Susuz mila hitz baino gehiago. Eta malinkez susuz baino pixka bat gutxiago. Frantsesez ez dakit zenbat hitz dakizkidan. [...]

10 Aitak zapatak saltzen zituen. Klean saltzen zituen baina zapatak etxeokak ziren, *des repose-pieds*. Etxea ez da korrika ibiltzeko lekua. Salmenta postutxoa gure etxetik bostehun metrora zegoen, mahai txiki bat bide bazterrean. Han egoten zen aita egun osoan. Noizbehinka norbait etortzen zitzaion eta hitz egiten hasten ziren, lehenik etxeko zapatez eta gero diruaz. Orduan aita oso pozik jartzen zen. Baina poza ez da gauza luzea. Eta diruaz hitz egin eta gero, bi banbu zati ateratzen zituen mahaietik eta zulo txiki bana egiten zion bakoitzari. Zati bat aitak gordetzen zuen eta bestea erosleak eramaten. Zorra zuloaren lodieraren arabera izaten zen. Holako banbu asko zeuzkan aitak bere mahaiaren azpian. Esaten zuen egun batean zapatak utzi eta txirula jotzen hasiko zela, baina zapatak saltzen segitzen zuen.

20 Tarteka otoitz egitera joaten zen eta ni bakarrik gelditzen nintzen mahaitxoan. Jendea inguratu eta gure zapatei begira egoten zen. Baina nik, “ezin dizut saldu”, esaten nien, “zaharra ez dago hemen, haren zain egon behar dut”. Nik ez nuen diruaren tonalitatea ongi ezagutzen, eta ez nekien paper bakoitzak zenbat balio zuen. Oso txikia nintzen. Orduan, zaharraren zain egoten ginen. Zaharra nire aita da, Mamadou Bobo Balde du izena.

25 Bost urtetik hamahiru urtera bizi izan nintzen aitarekin, Konakryn. Bostetik hamahirura zortzi zenbaki daude, baina Konakrytik gure herrixkara pixka bat gehiago, gutxi gorabehera laurehun eta hogeita hamar. Bakarrik abiatzeko gehiegi. Etxeko zapatekin ezin da hainbeste ibili. Hori esaten zidan aitak, ez nintzela iritsiko. Beraz haren ondoan egoten nintzen gure bide bazterreko mahaitxoan, ama ikusi gabe.

30 Baina banuen lagun bat, ni baino zaharragoa, ni asko maite ninduen. Behar nuen guztia eskatzeko esaten zidan. Batzuetan zapatak eskatzen nizkion, eta ematen zizkidan. Besteetan jateko zerbait eskatzen nion, eta ekartzen zidan. Anaia txiki baten gisan zaintzen ninduen. Lagun horrek Muhtar zuen izena. Behin, amari gutun bat idazteko eskatu nion, eta idatzi zuen. Biak batera joan ginen Konakryko geltokira eta han beste 35 norbaiti eman genion herrixkaraino eramane zezan. Ez dakit bizikletaz joan zen edo autobusean, baina badakit iritsi zela. Distantzia ez da arazoa gutun batentzat.

Askok gogoratzen naiz ni amarekin. Nire ama Fatimatu Diallo da, eta hilabeteak dira ez dudala harekin hitz egin. Ez daki Europara iritsi naizenik ere.

Iturria : Amets Arzallus Antia, Miñan, Susa Narratiba (2019)

PARTIE 1 : COMMENTAIRE GUIDÉ EN LANGUE RÉGIONALE (10pts)

“Ibrahima” testuaren azalpen bat idatz ezazu euskaraz.

Azpiko pista hauek erabil ditzakezu.

- Ibrahima eta aitarekiko harremana.
- Ingurumenean bere identitatea definitu.
- Oroitzapena kondaturik.

PARTIE 2 : TRADUCTION QUESTIONS DE GRAMMAIRE (5pts)

1. Traduction

Traduire en français le passage suivant :

Batzu jautsi ziren, beste batzu igan. Tuta hasi zen eta, azken mementoan, punpez gazte bat sartu zen. Ateak hetsi ziren automatikoki. Metroa abiatu zen.

Gazte bat zen neurri ederrekoa, koloreetan beltza. Bizkarrez metro paretari finkatu zen. Hasi zen gitarra jotzen. Eztiki bota zituen lehen notak eta erritmoak. Begiak hetsirik bere munduaren bila zihoan. Batbatean burua daldarikatu zuen eta bizpahirur nota azkar bota zituen emozio handi baten neurrikoak. Bere mundua topatzean, kantuz hasi zen. Jendeak bereari segitu zuen: ixilik egoteari, xuingoma maxtakatzeari, kaseta irakurtzeari, ondoko laguna tinkatzeari...

D'après Manex ERDOZAINTEZI-ETXART, Gauaren atzekaldean (1982)

2. Questions de Grammaire

Expliquer le phénomène grammatical lié aux mots soulignés :

- a) Punpez gazte bat sartu zen
- b) Begiak hetsirik bere munduaren bila zihoan
- c) Jendeak bereari segitu zuen: ixilik egoteari, xuingoma maxtakatzeari, ...

PARTIE 3 : COMMENTAIRE D'UN DOCUMENT PÉDAGOGIQUE (5pts)

Consigne :

Dokumentua aztertu eta kritikatu ondoan, tematika bat eta helburu pedagogiko bat(zuk) proposatuko dituzu, dokumentuaren koherentzia oinarrituz.



Argazkia : Igotz ZIARRETA, Made In Basque (2013)